

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZANBRANAKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea Zanbranako udalerriko plangintzako arau subsidiarioetako AI Z1 SAU-1 jarduketa integratuko hirigintzako jarduketa programari**

Udalbatzak, 2023ko martxoaren 30eko bilkura berezian, hasierako onespena eman zion Zanbranako udalerriko plangintzako arau subsidiarioetako AI Z1 SAU-1 jarduketa integratuko hirigintzako jarduketa programari. Programa hori Gobeia Heritage, SL merkataritza konpainiak sustatu zuen, eta jendaurreko informazioaren epea amaituta (iragarkia 2023ko apirilaren 12ko ALHAOn argitaratu zen, 43. zenbakian), alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, alkatearen 2023/0089 Dekretuaren bidez onetsi da.

Bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 156.5 artikuluan xedatutakoarekin, iragarki hau argitaratzen da, edukiaren laburpen batekin batera:

Egikaritze-eremua: Zanbranako SAU-1 industria izaerako lurzoru urbanizagarriaren sektorea, plangintzako arau subsidiarioen 11. aldaketa puntualak mugatua. Guztira, 29.511 m<sup>2</sup>-ko azalera du, eta sestra gaineko 0,70 m<sup>2</sup>c/m<sup>2</sup>s-ko eraikigarritasuna eta sestra azpiko 0,70 m<sup>2</sup>c/m<sup>2</sup>s-ko eraikigarritasuna arautzen da.

Honako muga hauek ditu hirigintzako jarduketa programa honek mugatutako egikaritze unitateak:

- Iparraldean: landa bidea eta A-3126 foru errepidea.
- Hegoaldean: 1 poligonoko 11 hiri lurzatia.
- Ekialdean: landa bidea.
- Mendebaldean: A-3126 errepidea hartzen duen Errege kalea.

Jarduketa sistema: ituntze sistema.

Antolamendu xehatua: 29.511,00 m<sup>2</sup>ko azalera du guztira, eta adierazitako azalera osoa, arau subsidiarioen aldaketa puntualean ezarritakoaren arabera, honela dago banatuta:

- b12 Industrial isolatua: 20.844 m<sup>2</sup>.
- f11 Espazio libreak: ezpondak eta ertzeko espazioak: 6.164 m<sup>2</sup>.
- e12 Komunikabideak: kaleak: 1.579 m<sup>2</sup>.
- e21 Komunikabideak: oinezkoentzako: 924 m<sup>2</sup>.

Epeak: fase bakarra; urbanizazio proiektuaren arabera, 8 hilabeteko iraupena izango du.

Zanbrana, 2023ko maiatzaren 17a

*Alkate-lehendakaria*

*AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI*